

WALIKALE

KONTSUMO ARDURATSUARI BURUZKO BIDEO-JOKOA.



ALBOANek www.walikale.org izeneko tresna pedagogikoa sortu du, Gatazkarik Gabeko Teknologia izeneko kanpainaren esparruan, eta www.tecnologialibredeconflicto.org atarian eskuragarri dauden gainerako heziketa-baliabideei eta ikus-entzunezko baliabideei gehitzen zaie.



Gure gailu elektronikoetan materia eta lehengai ugari daude, eta, horien artean, "gatazka mineralak"*, izenekoak; hau da, tantalioa, tungstenoa, eztainua (ingelesez 3T esaten zaie) eta urrea. Kongoko Errepublika Demokratikoaren ekialdetik eta Aintzira Handien eskualdetik ekartzen dituzte mineral horiek.

Gailu horiek kontsumo-fasera, gure patriketara, iristeko egiten duten bidaian aurrera egin ahala, erreparatuko dugu tresna elektronikoaren enpresa fabrikatzaileen hornidura-kateak beste puntu geografiko batzuetan (hala nola Asian) elikatzen direla, eta desberdintasuna eta lan-esplotazioa eragiten dutela.

Gailu elektronikoaren bizitza baliagarria amaitzean, hondakin-fasea dator. Fase horretan, hondakin elektroniko asko berriz ere Afrikako eta Asiako leku batzuetara itzultzen dira, eta, hala, zabortege ikaragarriak sortzen dituzte. Horren ondorioz, tokiko biztanleriak zabortege horietan bizi behar du urritasun handiko baldintzetan.

Flying Dodosek eta ALBOANek sortu dute www.walikale.org doako jokia, Bilboko Udalaren lankidetzari esker, heziketa-fitxa hau garatzeko. Jokoaren helburua da gazteengan galdera hauen inguruko hausnarketa sortzea:

- Zer bizitza-ziklo du telefono mugikor batek?
- Zer giza baldintzatan eta lan-baldintzatan fabrikatzen da teknologia?
- Zein da gailu elektronikoaren alderdi ezkutua?
- Zer modu berezitan dute eragina giza eskubideen zenbait urraketek tresna teknologikoaren hornidura-kateetan lan egiten duten emakumeen bizitzetan?

Planeta osoan barrena gidatutako bidaia baten bidez, "Fakephone 6" izeneko gezurrezko telefono mugikorraren fabrikazioan lan egiten duten zenbait pertsonaia ezagutuko ditugu. Pertsonaiekin hitz eginez eta zenbait minijoko gainditzen lagunduz, telefono baten ibilbide konplexua argitzen joan beharko dugu, Kongoko Errepublika Demokratikoko meatzeetatik haren bizitza-zikloaren amaierara arte, hau da, zabortege elektronikoetara arte.

Hala, kontsumo-eredu konpulsibo baten ordean, jokoak kontsumo-jarraibide jasangarriago batzuk proposatzen ditu, non erabiltzaileak kontzientziatuta dauden gailu berri bakoitzaren ekoizpenak dakarren giza eta ingurumen-kostuarekin. Jokoak ezaugarri nagusi hauek ditu:

- 11 eta 14 urte arteko pertsonentzat da. "Cartoon" erako estetika du, eta, horri esker, jokoak erakargarriagoa da adin-tarte horrentzat. Dena dela, landu beharreko gaiari buruzko aurretiko informazioak ez duen edozein adinetako pertsonak erabil dezakete.

- Kongoren ekialdeko biztanleriaren bizi-baldintzekiko enpatia garatzeko tresna bat da. Pertsona horien egoera identifikatzeko gako-sentimendu gisa, egoera horrek sortutako inpotentzia eta babes-gabezia sentimenduez baliatuko da.

- Jokoaren garapenean agertutako errealitateak aldatzeak berekin

dakarren erronkari buruz hausnartzea sustatzen du lehen pertsonan.

- Jokia gainditzeko, gutxi gorabehera, 50 minutu behar dira. Ikasgelan jokatzeke ezin hobea da, bai eta klase ondoko saio batean ere, jokoan ikusitako alderdiei buruz hausnartzeko.

- Html5 online joko bat da. Beraz, edozein ordenagailu eta telefono mugikor motaren bidez erabil daiteke, deskargatu behar gabe eta kanpoko plugik gabe.

- Zenbait minijokoz osatuta dago, errepikakorra gerta ez dadin, eta zailtasun-maila orekatua du, osorik egitea erronka bat den arren,

kalkulatutako denboran amaitzeko moduko izateko.

- Euskaraz eta espainieraz eskura daiteke.

- Kontrol-puntuaren sistema bat du. Hala, ez da beharrezkoa saio bakar batean bukatzea jokia. Beranduago buka daiteke utzi zen lekutik berriz hasita.

- Hornidura-katean genero-arrazioetatik izaten diren desberdintasunak identifikatzeko eta ohartarazteko da.

- Gazte taldeei eragin-ekintza zehatzak proposatzen zaizkie, jokoak azaldutako zenbait errealitate azpimarratzeko.

* **Gatazkako mineralak:** Kontsultatu "Gatazka mineralak definitzen" heziketa-fitxa <http://www.tecnologialibredeconflicto.org/Fichas/file01-en.pdf>

INFORMAZIO GEHIAGO LORTZEKO BALIABIDEAK

Kanpainaren web-orria: <http://www.tecnologialibredeconflicto.org>

ALBOANen heziketa-baliabideen web-orria: <http://mated2.alboan.efaber.net/eu>

Edukialboan aldizkariaren 9. alea: Gatazkako mineralak <http://mated2.alboan.efaber.net/eu/documents/311>

Gatazkarik gabeko teknologia heziketa-fitxak eta -posterrak: <http://www.tecnologialibredeconflicto.org/eu/hezkuntza-materialak/>



-en proiektu bat



lortzeagatik

Laguntzaile:

Jesuitek bultzatutako Fundazioa
www.alboan.org

www.gatazkarikgabekoteknologia.org

